
Prozac-aren eragina, hurrengo belaunaldietan ere bai

Fluoxetina sendagaia Prozac izenez merkaturatu zen lehen aldiz, eta oso erabilia da depresioa tratatzeko, baita haurdunetan ere. Orain, Otawako Unibertsitateko ikertzaileek haren eragina hobeto ezagutu behar dela ohartarazi dute, zebra-arrainen egindako esperimentuetan frogatu baitute botikaren ondorioak hurrengo belaunaldiei ere narbitzen zaizkiela.

Esperimentuan, zebra-arrainen enbrio arrak sei egunez izan zituzten fluoxetinaren eraginpean. Ondoren, jarraipena egin zieten, eta ikusi zuten kortisol-maila baxua zutela (depresioan kortisol-maila altua izaten da), eta apaltze horrek heldutan ere irauten zuela. Are gehiago: hurrengo hiru belaunaldietan ere kortisol-maila ohi baino baxuagoa zen. Horrekin batera, ingurua esploratzeko joera ere galtzen zutela ikusi dute.


Gogorazi dutenez, pertsonetan, kortisol-maila baxua neke kronikoarekin eta beste asaldura batzuekin lotzen da. Horrenbestez, fluoxetina epe luzez eta haurdunek erabiltzeak eragin ditzakeen ondorioak hobeto ikertzeko eskatu dute ikertzaileek. ●



Zebra-arrainaren enbrioak eredu egokia dira sendagaien eraginak ikertzeko. ARG.: Judith Cebra-Thomas/Millersville Unibertsitatea.

Unibertso goiztiarreko materiaz osatutako tantatxoak sortu dituzte

Ikertzaile-talde batek Big Banga gertatu eta berehala sortutako lehenengo materia ultraberoaz osatutako tantatxoak sortu ditu. Hain zuzen, quark-gluoi plasmaren antzeko egoera likido bat lortu dute, ustez Big Bangaren osteko lehenengo mikrosegundoetan unibertsoa bete zuenaren antzekoa, oraindik partikulak elkartu eta atomoak osatzeko beroegi zegoenean.



Gluoi-plasmaz osatutako tanten irudia, hiru forma geometrikotan: zirkuluak, elipseak eta triangeluak. ARG.: Javier Orjuela Koop.

New Yorkeko Relativistic Heavy Ion Collider azeleragailuan egin dute esperimentua. Protoien eta neutroien paketeak nukleo atomiko handiagoen aurka talkarazi, eta ikusi dute, baldintza jakin batzuetan, quark-gluoi plasmaren tantak sortzen direla, hedatu eta hainbat forma geometriko eratzen dituztenak: zirkuluak, elipseak eta triangeluak.

PHENIX esperimentuarekin, ikertzaileek argitu nahi dute zein den existitu daitekeen unibertso goiztiararren materiari txikiena. Hasteko, lan honek lagundu du ulertzen nola hoztu zen lehenengo materia ultrabero hura lehenengo atomoak sortzeko. Ikerketa [Nature Physics](#) aldizkarian argitaratu dute. ●